

UDALA ERATZEKO 2019KO EKAINAREN 15EKO BILKURAREN AKTA

Udaletxeko Bilkura Aretoan, idazpuruko eguneko goizeko hamabiak direnean, ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoko 195. artikuluan ezarritakoa betez, eta Udaletxeko eratze-bilkura egin asmoz, hautatutako zinegotziak elkartu dira lehen deialdian, aurrez hauek beraien izendapen-egiaztapenak aurkeztu dituztelarik, beraien nortasuna egiaztatuz.

ETORRITAKO ZINEGOTZI HAUTATUAK:

Joseba Izagirre Arozena jn. (Zegama Lantzen).

Izaskun Igoa Arizcorreta and. (Zegama Lantzen).

Ibon Zabaleta Urbizu jn. (Zegama Lantzen)

Iñaki Xabier Albizu Ormazabal jn. (Zegama Lantzen)

Julian Iraola Lapizondo jn. (Zegama Lantzen)

Imanol Garmendia Iruretagoiena jn. (EH Bildu).

Iosune Azurmendi Telleria and. (EH Bildu).

Aritz Agirre Garikano jn. (EH Bildu).

José Luis Azurmendi Larrea jn. (EH Bildu).

EZ ETORRITAKO ZINEGOTZI HAUTATUAK

Zinegotzi hautatu guztiak bertaratu dira.

Adinezko Mahaia osatuta geratzen da, hurrenez hurren adinez bertaraturiko nagusiena eta gazteena diren Julian Iraola Lapizondo jn. (Zegama Lantzen) eta Iosune Azurmendi Telleria andereaz (EH Bildu), osatua, Zonako Hauteskunde Batzordetik jasotako ziurtapenetatik isurtzen denez, D. Julian Iraola Lapizondo jn. (Zegama Lantzen) delarik Lehendakaria, adinez

ACTA DE LA SESION CONSTITUTIVA DEL AYUNTAMIENTO DE FECHA 15 DE JUNIO DE 2019

En el Salón de Sesiones de la Casa Consistorial a las doce horas, del día del encabezamiento, en primera convocatoria, en cumplimiento de lo establecido en el art. 195 de la Ley Orgánica 5/1985, de 19 de junio y a los efectos de celebrar sesión constitutiva del Ayuntamiento, se reúnen los Concejales Electos, quienes han presentado previamente sus credenciales, acreditando su personalidad.

CONCEJALES ELECTOS ASISTENTES:

D. Joseba Izagirre Arozena (Zegama Lantzen).

D.ª Izaskun Igoa Arizcorreta (Zegama Lantzen).

D. Ibon Zabaleta Urbizu (Zegama Lantzen)

D. Iñaki Xabier Albizu Ormazabal (Zegama Lantzen)

D. Julian Iraola Lapizondo (Zegama Lantzen)

D. Imanol Garmendia Iruretagoiena (EH Bildu).

D.ª Iosune Azurmendi Telleria (EH Bildu).

D. Aritz Agirre Garikano (EH Bildu).

D. José Luis Azurmendi Larrea (EH Bildu).

CONCEJALES ELECTOS NO ASISTENTES

Asisten todos concejales electos.

Queda formada la Mesa de Edad, integrada por D. Julian Iraola Lapizondo (Zegama Lantzen) y D.ª Iosune Azurmendi Telleria (EH Bildu), concejales de mayor y menor edad asistentes, respectivamente, según se desprende de las certificaciones recibidas de la Junta Electoral de Zona. Presidiéndola D. Julian Iraola Lapizondo (Zegama Lantzen) por ser el de mayor

nagusiena delako, eta Korporazioko bitarteko Idazkari den Igor Alustiza San Vicentek jaunak diharduelarik Mahaiko idazkari lanetan.

Era horretan, Adinezko Mahaiak bertaratutako Zinegotzi hautatuak aurkeztutako izendapen-egiaztapenak ikuskatzen ditu.

Era berean Idazkariak egiaztatzen du zinegotzi hautatu guztiek beraien ondasun eta interesen aitortpena aurkeztu dutela.

Bilkura honetara zinegotzi hautetsi guztiak etorri direla kontuan hartuta, eta ondorioz, legezko gehiengo osoa, zinegotzi hautetsiek kargua formalki hartzeko hitzeman edo zin egin behar dute indarrean dagoen araudian ezarritako ereduaren arabera:

Zin egin edo hitzematzen al duzu, "zinegotzi karguaren obligazioak finko beteko dituzula erregeari leial izanez eta Konstituzioa Estatuko oinarritzko arau legez betez eta betearaziz?"

Zinegotzi guztiak, Hauteskunde Erregimen Orokorren Lege Organikoak bere 108. atalean eta ezargarrira den legedian adierazitakoaren arabera, legeak horrela agintzen duelako, kargua hartzearen onarpena adierazten du, honek suposatzen dituen betebeharrak zintzo beteko dituela adieraziz, eta ondorioz, kargua hartzen dute.

Adierazitakoaren arabera, zinegotzi hautatuen gehiengo osoa bertaratu dela kontuan izanik, Mahaiak, Korporazio berria eratuta geratzen dela adierazten du.

Ondoren, Alkatea hautatzeari ekiten zaio, horretarako aipatutako ekainaren 19ko 5/1985 lege Organikoaren 196. Artikuluan

edad, y actuando de Secretario de la misma el que lo es interinamente de la Corporación D. Igor Alustiza San Vicente.

En consecuencia, la Mesa de Edad comprueba las credenciales presentadas por los Concejales electos asistentes.

Asimismo, el Secretario certifica que la totalidad de los concejales electos asistentes han presentado sus declaraciones de intereses y de patrimonio.

Habida cuenta de que concurren a esta sesión la totalidad de los concejales electos y, por consiguiente, la mayoría absoluta legal, para adquirir la plena condición de sus cargos, los electos locales deberán jurar o prometer acatamiento de la normativa vigente conforme a la fórmula legal establecida en la normativa aplicable.

¿Juráis o prometéis por vuestra conciencia y honor cumplir fielmente las obligaciones del cargo, con lealtad al Rey, guardar y hacer guardar la Constitución como norma fundamental del Estado?"

La totalidad de los concejales, conforme a lo establecido en el art. 108.8 y 195.3 de la Ley Orgánica de Régimen Electoral General y la normativa aplicable, manifiesta la aceptación del cargo y cumplir fielmente las obligaciones derivadas de su desempeño, por imperativo legal, y toma posesión del mismo.

En vista de lo anterior, y habida cuenta de la concurrencia de la mayoría absoluta de los concejales electos, la Mesa declara constituida la nueva Corporación.

Acto seguido se procede a la elección de Alcalde, a cuyo efecto, de acuerdo con la normativa establecida en el art. 196 de la

ezarritako araudiari jarraiki, jarraian zerrendatzen diren Zinegotziak aldarrikatzen dira Alkatetzarako hautagai.

citada Ley Organica 5/1985 de 19 junio, se proclaman candidatos para la Alcaldía a los Concejales que seguidamente se relacionan.

HAUTAGAIAREN IZENA/ TALDEA

NOMBRE DEL CANDIDATO/ GRUPO

Joseba Izagirre Arozena jn. (ZEGAMA LANTZEN)

D. Joseba Izagirre Arozena (ZEGAMA LANTZEN)

Imanol Garmendia Iruretagoiena jn. (EH Bildu).

D. Imanol Garmendia Iruretagoiena (EH Bildu).

Bertaratutako zinegotziek bozketari ekiten diote, hau eskua altxatuz bideratzeko borondatea adieraziz, eta emandako botuen kontaketa burutu ondoren, honako ematiza hau lortzen da:

Los Concejales asistentes proceden a la votación, manifestando su voluntad de realizarla a mano alzada, y efectuado el recuento de los votos emitidos, se obtiene el resultado siguiente:

Boto-emaileak:

Votantes:

Hautagai bakoitzak lortutako botoak:

Votos obtenidos por cada candidato:

Joseba Izagirre Arozena jn. (ZEGAMA LANTZEN): 5 boto.

D. Joseba Izagirre Arozena (ZEGAMA LANTZEN): 5 votos.

Imanol Garmendia Iruretagoiena Jna. (EH Bildu); 4 boto.

D. Imanol Garmendia Iruretagoiena (EH Bildu): 4 votos.

Horren arabera, Joseba Izagirre Arozena Jna. (ZEGAMA LANTZEN) aldarrikatzen da Alkate, zinegotzien botoen gehiengo osoa, hau da bost (5) boto, lortu duelako

Conforme a ello, queda proclamado Alcalde D. Joseba Izagirre Arozena (ZEGAMA LANTZEN), al obtener la mayoría absoluta de votos de los concejales, esto es cinco (5) votos.

Karguaren jabetza hartu ondoren, Joseba Izagirre Arozena Alkateak adierazten du: "Gaur egungo gizartea ikusirik, eta suposatzen duen esfortzua kontuan harturik, denok gustora egoteko modukoa da bolondres bezala Zegamaren alde lan egiteko aurkeztu diren eta hautatutako pertsonak aurkitzea. Zentzu horretan, nire familiari eskerrak eman nahi dizkiot. Era berean, eskerrak eman nahi dizkiet programa osotzen lagundu duten herritarrei eta nire taldeari. Gure helburua, aurreko

Tras la toma de posesión del cargo, el Alcalde D. Joseba Izagirre Arozena manifiesta que: "En vista de la sociedad actual, y del esfuerzo que ello supone, resulta satisfactorio el hecho de encontrarse con el grupo de personas que han participado y resultado elegidas para trabajar como voluntarios y voluntarias en beneficio de Zegama. En este sentido quiero agradecer especialmente a mi familia. Asimismo quiero manifestar mi agradecimiento a los vecinos y vecinas que

legealdian bezala, hurrengo lau urteetan Zegama eta zegamarren alde lan egitea dela, lan horrek emaitza positiboak ematea espero”.

Imanol Garmendia Iruretagoiena zinegotziak (EH Bildu) hitza harturik honako hau adierazten du: “ Lehenik eta behin bere talde guztiari eskerrak eman nahi dizkiot eta, baita ere, herri programan lanetan aritutakoak. Talde bezala zegamarren botoen ardura hartzen dugu eta datozen lau urte hauetan ahal den ondoen saiatuko dira lan egiten. Zentzu horretan, aurreko lau urteetako esperientziak akatsak zuzentzeko eta lan egiteko balio izateak espero dut.”

Kargua hartu ondoren, Idazkariak ohiz kanpoko kontaktaren berri emango du, honen emaitza dagokion dokumentuan jasotzen delarik. Era berean, Korporazioaren Ondareen eta Eskubideen Inbentarioaren egoera jakinarazten da.

Korporazioa Joseba Izagirre Arozena (Zegama Lantzen jaunaren Lehendakartzapean eratu ondoren, hamaikak eta hamabost minutu direnean bilkura altxatu egiten da, esandakoa jasoarazteko, nik egiaztaturiko eta Alkateak sinaturiko akta hau egiten dudalarik.

Eginbidea.

Aurrean transkribaturiko akta, orri dituela jasotzeko, zenbakidun paperan zenbakitik zenbakira eta Udalak emandako zenbakietan, zenbakitik zenbakira jasota geratu delarik.

Zegama, 2019Kok

**O.E./ V°B°
ALKATEAK/ EL ALCALDE**

nos han ayudado a formar el programa, así como a mi grupo. Nuestro objetivo, al igual que en la legislatura anterior, es trabajar en beneficio de Zegama y de los y las Zegamarras durante los próximos cuatro años, con la esperanza de obtener resultados positivos”.

Tomando la palabra el concejal Imanol Garmendia Iruretagoiena (EH Bildu) manifiesta que: “En primer lugar quiero agradecer a todo mi grupo así como a todas las personas que han participado en el programa municipal. Tomamos como grupo, la responsabilidad de los votos otorgados por los y las zegamarras e intentaremos trabajar de la mejor manera posible durante los próximos cuatro años. En este sentido, espero que la experiencia acumulada durante los pasados cuatro años sirvan para corregir los defectos y seguir trabajando.”

Tras la toma de posesión de cargos, el Secretario dará cuenta del arqueo extraordinario, cuyo resultado se refleja documentalmente. Asimismo, se da cuenta del estado del Inventario de Bienes y Derechos de la Corporación.

Tras ello, constituida la Corporación bajo la Presidencia del Alcalde D. Joseba Izagirre Arozena (Zegama Lantzen), se levanta la sesión a las doce horas y quince minutos minutos, y para constancia de lo tratado extendiendo la presente acta que firma el Sr. Alcalde y la certifico con mi firma.

Diligencia.

Para hacer constar que el acta que antecede tiene folios, numerados del al en número de papel timbrado y del al en numeración dada por el Ayuntamiento.

Zegama a de de 2019.

IDAZKARIAK/ EL SECRETARIO